

Lan hitzarmena sinatuko dugu aurreakordioan sinatutako guztia jasotzen bada

Zerbitzuetako langileen hurrengo Mahai Negoziatzalea datorren astelehenean izango da. Bertan sinatzeko Lan Hitzarmenaren testu proposamena bidali dute eta horrekin batera, hitzarmenean jaso zen ordezkoen zerrenden irekiera. Sukaldeko ratioak kalkulatzeko 7 orduko koefizientea txertatzea lortu dugu. Atzo bidali genituen aurreakordioan sinatutako guztia behar bezala jasotzeko ekarpenak eta berme klausulari lotutakoak. Guziak behar bezala txertatzen badira, LABen sinadura izango du testuak.

Zerbitzuetako langileen hurrengo mahai negoziazilea urtarrilaren 19an izango da, bertan Lan Hitzarmenaren testu proposamena sinatzeko ekarriko dute eta horrekin batera hitzarmenean jaso zen ordezkoen zerrenden irekiera. Gogoratu nahi dugu, **2025eko martxoaren 21ean**, greba eta mobilizazioeia amaiera emanez Lan Hitzarmen berriaren aurreakordioa sinatu genuela. Halaber, **maiatzaren 22an** jatorrizko testuaren gaineiko **hainbat zuzenketa** sinatu genituen.

Hilabete guzti hauetan **LABetik**, kolektibo honetan **lehen indarra** izatearen arduragatik, **akordioaren defentsa** egin dugu, bai eta honen **jarraipen zorrotza** ere. **Administrazioaren moteltasuna eta** behin eta berriz egiten zituen **interpretazio okerrak salatu ditugu** publikoki zein idatzi formalen bitartez hainbatetan. Bitartean, **lanean aritu gara** buru belarri, **adostutako guztia jasoko duen behin betiko testua lehenbailehen sinatzeko**, hau EHAAn argitaratzea dugulako helburu, garatzeko eta hobetzeko dauden araudi eta prozesu guztien lanketa eta negoziazioei ekiteko.

Ikasturte hasieratik, sukaldeko ratioen inguruan Hezkuntza sailaren interpretazio okerrak eta garbiketako metraje jaitsiera implementatzeko egin duen aurreikuspen faltak bete-betean eragin negatiboa izan du langileen egunerokotasunean, haien lan karga izugarri areagotuz.

LABetik tokian tokiko eskaerak egin ditugu etengabe, egoerari irtenbidea emateko.


Hau gutxi balitz, Hezkuntza Sailak aurreakordioan sukaldeko ratioen kalkulurako **7 orduko koefizientea interpretazio okerra egiten ibili da** eta **hitzarmenaren azken testu proposamenetik kendu zuen**.

Esan genuen, ordea, hitzarmenak LABen sinadura izateko greba amaierako aurreakordioan eta zuzenketen dokumentuan jasotako guztia egoteaz gain, irakasleen hitzarmenean eta gerora heziketa berezian sinatu ditugun lizentzia eta baimenetan txertatutako hobekuntzak egon behar zirela. Ez genuela atzera pausurik onartuko, ezta birnegoziatuko ere. Horretarako langileok ditugun **tresna guztiak erabiltzeko prest gaude: ekintza sindikala, negoziazio kolektiboa eta bide judziala**.

Bestalde **adinagatiko murrizketarekin** egon den arazoa **konpontzea eta jasota zegoen bezala aplikatzen jarraitzea** lortu dugu.

Gauzak horrela, astelehenarako jaso dugun azken proposamenean, ezinbestean txertatu beharreko **sukaldeko ratioak kalkulatzeko 7 orduko koefizientea jasotzea lortu dugu** eta atzo bertan bidali genituen aurreakordioan jasotako guztia behar bezala jasotzeko ekarpenak. Guztia behar bezala txertatzen bada, LABen sinadura izango du testuak.

Zerbitzuetako langileentzako mugarri garrantzitsu bat izango da hau eta jakitun gara oraindik ere bide luzea dugula aurretik, hitzarmenean garatu behar diren hainbat puntu baitaude. Langileen lan baldintzak hobetzea helmugarik gabeko iraupen-lasterketa da baina **lanak eta borrokak merezi dute!**



16 de enero del 2026

Firmaremos el convenio si se recoge todo lo firmado en el preacuerdo

La próxima Mesa Negociadora del personal de servicios tendrá lugar el próximo lunes. Se llevará a la misma la propuesta de firmar el texto del Convenio Laboral y también la apertura de listas de sustituciones como se recogió en el mismo. Hemos conseguido que se recoja el coeficiente de 7 horas para el cálculo de ratios de cocina. Ayer mismo enviamos las alegaciones para que añadir correctamente todo el contenido del preacuerdo, así como la cláusula de garantía. Si todo se recoge correctamente, el texto llevará la firma de LAB.

La próxima mesa negociadora del personal de servicios se celebrará el 19 de enero con la propuesta de firmar del texto del Convenio Laboral y la apertura de listas de sustituciones que se recogió en el mismo. Recordamos que **el 21 de marzo de 2025, firmamos el preacuerdo del nuevo Convenio Laboral**, poniendo fin a las huelgas y movilizaciones. Asimismo, **el 22 de mayo firmamos varias correcciones al texto original**.

Desde la responsabilidad que tenemos al ser la **primera fuerza en este colectivo**, durante todos estos meses **desde LAB hemos defendido el acuerdo y hemos realizado un seguimiento riguroso** del mismo. Hemos **denunciado** tanto públicamente como a través de escritos formales la **lentitud de la administración** y sus **reiteradas interpretaciones erróneas**. Además, **hemos trabajado intensamente para firmar cuanto antes el texto definitivo** el cual debe recoger todo lo acordado y que el mismo se publique en el BOPV, para así poder empezar a trabajar y negociar todas las normativas y procesos que se han de desarrollar y mejorar.

Desde principios de curso, la interpretación errónea del Departamento de Educación de las ratios de cocina y su falta de previsión para implementar la bajada de metraje en limpieza **ha incidido negativamente en el día a día del personal, aumentando enormemente su carga de trabajo**.

Desde LAB hemos realizado continuamente peticiones concretas para dar solución a la situación. Por si esto fuera poco, el coeficiente de **7 horas para el cálculo de ratios de cocina** recogido en el preacuerdo ha sido interpretado erróneamente por el Departamento de Educación, que además eliminó de la propuesta del texto final del convenio.

Pero ya dijimos que para que el convenio sea firmado por LAB, no íbamos a aceptar pasos atrás ni a renegociar nada. Además de todo lo que se recogió en el preacuerdo de fin de huelga y en el acuerdo de correcciones, tienen que recogerse las mejoras del capítulo de licencias y permisos que firmamos en el convenio de docentes y más tarde en Educación Especial. Para ello **estamos dispuestas a utilizar todas las herramientas que tenemos los y las trabajadoras: la acción sindical, la negociación colectiva y la vía judicial**.

Por otro lado, **hemos conseguido solucionar el problema que ha habido con la reducción de jornada por edad y que se siga aplicando tal y como estaba recogida**.

Por lo tanto, en la última propuesta que hemos recibido para el lunes, **hemos conseguido recoger el coeficiente de 7 horas para calcular los ratios de cocina que es imprescindible** y ayer mismo enviamos las alegaciones para que se recoja correctamente todo el contenido del preacuerdo. Si se recoge correctamente, el texto llevará la firma de LAB.

Este será un hito importante para el personal de servicios y somos conscientes de que todavía nos quedará mucho camino por delante, ya que hay varios puntos a desarrollar en el convenio. Mejorar las condiciones laborales de los y las trabajadoras es una carrera de fondo pero ¡el trabajo y la lucha merecen la pena!